

Herri Aldizkaria

# Otozmo



**JOSEBA APAOLAZA :**  
"Zinea eta telebista baino  
nahiago dut antzerkia"



SOFBOLEKO ESPAINIAKO  
TXAPELKETA  
ZUMARRAGAN EGINGO  
DA

EUSKALTZALEEN  
EGUNA GIRO  
ONEAN OSPATU  
ZEN

ANTZERKI ASTEA  
ARRAKASTATSUA  
IZAN DA

# LAPIKO ARTEAN

## Bakailaoa pil-pilean

3 baratzuri ale xerratan ebaki eta oliba oliotan poliki poliki frijitzen jarri. Baratzuriak gorritzen hasi orduko ontzitik atera. Segidan bakailao xerrak oliotan pasatu bi aldetatik. Urre kolorea hartutakoan ontzitik atera behar dira. Ondoren, ontzia sutatik kendu, olio pixka bat hoztu dadin. Olio zertxobait hoztutakoan bakailaoa berriro ere ontzian, su txikian jarri eta ontziari ondo eragin, olio loditu arte. Eragiten zaion bitartean, bakailaoaren ura gehitu behar da ontzian eta nahi izanez gero, pikantea ere bota daiteke. Pikantea tabaskoa edota piper txorizeroa izan daiteke, norberaren gustura.

JUANITA Jatetxeko

Juanita Aizpuruk

emandako errezeta

Artiz auzoa, 8

© 72 45 36

Ettxekoa: 72 52 56

ZUMARRAGA


### Osagaiak

2 lagunentzat: oliba olio txorrotada bat, 3 baratzuri,  
4 bakailao xerra eta pikantea (tabaskoa edo piper txorizeroa)

## Lehiaketa

- Zumarragako zein elkartek beteko du aurten bere 25. urteurrena eta zein egunetan?

Juanita jatetxean, 2 lagunentzako afaria irabazi nahi baduzu, bidali galderaren erantzuna, zure izen-abizenak eta telefono zenbakia zehaztuz 96-06-20 baino lehen OTAMOTZ-era, Labeaga kalea 12ra, edota bertara etor zaitez.



CONCURSO

100 RAZONES PARA APRENDER EUSKERA

...ETA ERABILTZEKO BESTE HAMAIIKA ARRAZOI

LEHIAKETA




Bisasti AEK Euskaltegia



UDAL

EUSKALTEGIA



## Errenta aitorpena

Errentarako aitoren garaia gainean dago guztioi txanda heltzen baitzaigu goiz edo beranduago, diru apur bat aurreztutzeko ilusioa akabo lehendikan asko ez gendun eta orain berriz gutxiago

Famili danei zerbait kenduaz dabilzkigu urtez-urte gure kontura euren patrikak azkar betetzen dituzte estatuaren poltsa handituz besteon lanaren truke eta dirurik gehien dutenak gutxien ordaintzen dute



GORKA OJANGUREN

## Antzerki astearen balorazioa

Jadanik, baditugu ospatu berri den **Josu Etxeberria X. Antzerki** astearen ondorioak. % 96a izan da antzezlan ezberdinetara joan den ikusle kopurua eta ikuskizun bakoitza banaka aztertu ez badugu ere, orokorrean oso erantzun ona izan du aurtengo antzerki asteak. Horregatik gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu bertan parte hartu duten ikusle eta antzerki taldeetako partaide guztiei. Antzezleen esanetan bi herriotako ikuslegoa oso esker onekoa omen da, ez eskaintako dena gustoko duelako baizik eta ikusitakoarekin kritikoa delako, eskenatokian lanean diharduen antzezleak ondo asko antzematen baitu ikuslegoak lanarekiko duen jarrera. Antolatzaile lanetan ibili garenok ere eskerrak ematen diegu herritarrei gudan izan duten konfidantza eta eman dizkiguten animoengatik.

Urretxu-Zumarragan eskaintako ikuskizunak oso ezberdinak izan dira, ikuslegoak, printzipioz umorezkoak eta naturalista kutsuko lanak gustoko dituen arren, igande arratsaldean antzezlan surrealista bat ikusteko aukera izan zen eta honek ere oso harrera ona izan zuela esan beharrean gaude. Horregatik horrelako saioak ere eskaini behar direla uste dugu, antzerki mota guztiak ikustea maila sozio-

kulturalari onura egiten diolako. Kafe antzokiak izandako arrakasta ere aipatzekoa da eta aldi berean, antzerkia herrira gerturatze dagoen premia.

Autokritikari dagokionez, hurrengo antzerki astean izango dugu zer hobetu. Hala nola, egitarauan euskaraz eta gaztelaniaz diren antzezlanak zehaztu, kafe antzerki gehiago antolatatu, antzokietako toki arazoa konpondu eta haurrentzako eskaintza ere, kontutan hartu beharko dugu.

Berriro ere, gure esker ona luzatu nahi genuke eta bide batez, antzerki aste honetan omendu nahi izan dugun Josu Etxeberria eta kotxe istripuz bizia galdu duen Carlos Merino aktore zumarragarra gogoratu nahi ditugu.

**Elkarte** Autonomiko ezberdinetako Antzerki eta Dantza Elkarten topaketei dagokionez oso positiboak izan direla azpimarratu behar da. Bertan, Antzerki eta Dantza elkarten federazioa sortzeko beharra aurrikusi da.

Zumarraga eta Urretxuko jaiak eta uda ondo pasa, urrian berriro ere gurekin antzerki saiotan izango zaretelakoan, lster arte. Eskerrik asko.

**Joseba Gil.**

Antzerki astearen antolatzaileetako bat eta Antzerki tailerreko kidea.

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*



Labeaga, 31 Tnoa. Faxe. 72 61 20  
URRETXU



## Errola egileak

Hauexek dira Urretxu eta Zumarragako **udal errolda egileak**. Errola hau bost urtetik behin berritu da orain arte..Herritarren erantzuna ona izan da, Urretxun dagoeneko 5.073bizilagunen datuak, (biztanlegoaren %82a) eta Zumarragan 8.500



lagunenak (%85a) jaso baitira.Hala ere, bada oraindik bulegoetara inguratu ez den herritarrik. Erroldan izen ematea derrigorrezkoa denez eta epea bukatzeaz dagoenez, izena emateko falta direnak lehen bait lehen inguratu daitezten eskatzen dute arduradunek.



## Eitzako jaietan Joseba Jakari omenaldia

Giro ezin hobean ospatu dira Eitzako **San Isidro jaiak**. Auzoko bizilagunenez gain,Urretxu eta Zumarragako herritar ugari hartu du parte festa batzordeak antolatutako ekintza ezberdinetan. Konpondu berri diren plaza eta kalea inauguratzeko aprobetxatu dira aurtengo festak. Plazari, **Joseba Jaka** izena jarri diote, modu honetan apirila hasieran istripuz hil zen auzokide izandakoa eta, euskal kulturaren alde lan handia egin zuena, omendu nahi izan dute Eitzakoek.

**MAPFRE**  
Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA

**ZAPATAK**

**Otik 40 zenbakiraino**

Eliz Kale, 7 © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

**LIBURUENDIA**

**GANBARA**

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45  
20700 URRETXU

**ANSA**

**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 23

**Mutua General de Seguros**

Iparragirre, 11-etxeazpia  
20700 URRETXU © 72 25 99

**ITURGINTZA**


**LUIS ANGEL**

**Gure erakusketan zain gauzkazu!**

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxe: 72 54 59

□ **Euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena**

Apirilaren amaieran eman zitzaion bukaera bi herriotan euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmenaren lehen ahaleginari. Zintzo-Mintzok bultzatutako hitzarmena 1994ko urtarrilean sinatu zuten Zumarraga-Urretxuko hainbat taldek eta elkartek, eta bi urteko lanaren ondorioz, joan zen apirilaren 26an balorazio txostena aurkeztu zitzaien hitzarmeneko protagonista izan diren elkarte eta ikastetxeetako ordezkariak. Bi urteotan udalek finantziatu dute proiektua, eta une honetan etenaldi bat egin behar izan da, harik eta ondorengo urteetako norabidea erabaki arte. Argazkian, **Andoni Salamero** azken urtean hitzarmeneko teknikaria izan dena.



□ **Aukerako liburu eta diska azoka**

Maiatzaren 10etik 19ra bitartean, Urretxu eta Zumarragan egin zen aukerako **liburu eta diska azokan** zenbait herritar liburu saltzen ikusteko aukera izan genuen. **ELKAR** argitaletxeko langilea den **Andoni Aranburu** zumarragarra esan zigunez, herritarren erantzuna oso ona izan da, jende asko ibili da azokan eta salmentak ere onak izan dira. Beste herri batzuetan azokak izaten duen erantzunarekin konparatuz, oso harrera ona egin omen diogu feriarri, eta liburuez gain, diskak ere erosi omen ditugu.

**SUGELA**  
ENMARKATUAK

BIDE ZAHAR, 7 ZUMARRAGA 4820491.

**Kahunas**  
O'NEILL-ASTORE-LIBERTO-H.W.-LIBERO

Udaberriko eta udako modarik onena

20700 Urretxu      Nekolalde, 5  
Tlfnoa: 72 56 89

**EDURNE**

*Punta puntako moda*  
*Aukerarik hoberena*  
*gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA

**Darmanki**

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak

Labeaga, 2 URRETXU      ☎ 72 25 13

**BAPRI**

Animalidenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

# Joseba Apaolaza

## aktorea

- Urretxuarra • 1984. urtean egin zuen bere lehenengo antzerki lan profesionala • Bi urtez Concha Velascorekin batera “*Carmen Carmen*” lana antzezten aritu zen
- Antzerkia, zinema eta telebistan makina bat lan egindakoa da, baina antzerkia du gustukoen bertan ikusten baitu seguruen bere burua
- Oso kritikoa da lanarekin eta gutxitan omen dago gustura egindakoarekin • Euskal Herriko ikastetxeetan drogaren aurkako *Mundopolis* lana antzezten dihardu orain • Juan Luis Mendiarez aktore urretxuarrarekin batera, *Malena es un nombre de tango* filmean lanean aritu berria da • Irailean Euskal Telebistako *Jaun eta Jabe* telesaileko atal berriak grabatzen hasiko da



**Beharrezkoa al da antzerki eskolan ikastea, antzezlea izateko?**

Ni ez naiz antzerki eskolan ibili. Profesional moduan hasi nintzenean apenas nuen esperientziarik, lanean ikasi dut dakidan guztia, hala tokatu zaidalako. Behin lanean hasi eta gero hala ere, egin izan ditut antzerki ikastaroak.

**Antzerkian, zineman eta telebistan ibilia zara, zein duzu alorrik gustokuena?**

Antzerkiari, zinema edo

telebistan lan egiteari baino askoz ere ordu eta dedikazio gehiago eskaini dizkiot. Lan sistemagatik eta horretan langehiago egin dudalako ziurrago sentitzen naiz antzerkian.

**Desberdintasun handia al dago antzerkia, zinema eta telebistaren artean?**

Lan egiteko modua erabat ezberdina da. Antzerkian, entseiuek emanaldiek beste garrantzi dute. Denbora luzez entseiatuz prestatzen dira lanak. Honek lanaz jabetu eta lana menperatzeko aukera


**Noiz eta nola piztu zitzaizun aktore izateko grina?**

Magisteritza ikasketak bukatu nituenerako antzerkian aritzea gustuko nuen. Eskolaurreko espezialitatea egin eta lau urtetan haur txikiekin lanean ibili ondoren, antzerkirako nuen grina areagotu egin zitzaidan. 1984. urtean irakasle lana utzi eta antzerkian lehenengo lan profesionala egin nuen.

A

Agutzare dekorazioa  
LABFAGA 52-720494

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



**ARTYRO**


Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20 URRETXU



**TXINDOKI**  
TABERNA

**Txopitoetar berezitasuna**

Secundino Esnaola, 18 ZUMARRAGA



eskaintzen du.

Zine munduan, *Zergatik Panpox*, *Hamaiseigarrenean aidanez*, *100 metro*, *27 ordu*, *Lauaxeta*, *Ander eta Yul...* filmeetan lanik egin dut, baina zineman ez dut nire burua egiten dudanaren jabe sentitzen oraindik.

Antzerkian, neurri batean behintzat adierazi beharrekoa modu egokian antzeztea lortu dudala uste dut eta ez dakit hau zinema munduan lortzerik izango dudan.

**Asteartero Euskal Telebistako Jaun eta Jabe telesailen ikusten zaitugu.**

Umerezko telesaila da, bizimodu gogorraz eta politikaren mundu zorrotzaz dugun ikuspegia biguntzeko bidea eskaintzen duena. Arrakasta handia izan du eta jakin izan dudanez irailean atal berriak grabatzen hasiko gara.

**Gustura al zaude bertan egindako lanaz?**

Oso kritikoa naiz lanarekin eta gutxitan nago konforme eginda-koarekin.

**Antzerkiaz bakarrik bizi al daiteke?**

Ekonomikoki, hilean behin emanaldi bat eskaintzea ez da errentagarria. Errentagarria izateko, lan bat baino gehiago egin behar izaten dira batera. Lanen konbinaketak ematen du, antzerkiaz bizitzeko aukera. Bestalde, emanaldi gutxi eskaintzea antzezlanerako ere kaltegarria da lanak ez duelako gora egiten. Antzezlan guztiek estreinua eta funtzioak behar dituzte antzezleek lana menperatu ahal izateko eta lanak gora egiteko.

**Zertan zabilza orain?**

Gazteei zuzendutako drogaren aurkako *Mundopolis* lana antzezten dihardut ikastetxeetan. Bestalde, *Malena es un nombre de tango* filmea grabatu berri dut **Juan Luis Mendaraz** urretxuarrarekin batera.

**Herrian antzezteko paradarik izan al duzu sekula?**

Itzalonen bi lan antzeztu nituen *Divinas Palabras* eta *Contactos Cabaret*. Pagoeta antzokia estreinatu

zenean ere komedia beltz bat antzeztu nuen bertan.

**Zer moduzkoa da Pagoeta antzokia?**

Urretxu eta Zumarragako egoera antzokiei dagokionez ez da ona. Itzalonek beharrezkoak diren arauak betetzen zituen baina Pagoeta eskasa da, zenbait lan ez dira hain eskenatoki txikian sartzen.

**Ezagutzen al duzu herriko antzerki tailerra?**

Ez dut ezagutzen baina entzun dudanez talde polita dabil lanean eta oso lan ona egiten ari dira. Oso ondo iruditzen zaizkit honelako taldeak.

**Zer iruditu zaizu ospatu berri den Urretxu Zumarragako Josu Etxeberria X. Antzerki astea?**

Lan guztiak ikusi ez baditut ere, ikusitakoak oso kalitate onekoak izan dira. Egitarau ona izan duen astea izan da.



**MASTER** - Hezkor  
CALFNA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31  
20700 ZUMARRAGA

**belar-zain**

*Belardenda, dieta eta errejimen elikadura*

Labeaga, 31  
URRETXU

Tfnoa: 72 27 80

**ZUMALORE**  
LORATEGIA

Begona Sagasuzabai

© 72 51 90 - 72 06 76

Iparragirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA

## San Juan eta Santa Isabeletako bederatziurrenak egiteko ohiturarik ba al duzu?



**Xabier Izagirre**

Ez, ez naiz sekula joan, beharbada txikitan noizbait joana izango naiz baina ez naiz gogoratzen. Hala ere, erromeri egunean bietara joaten naiz urtero, oso egun politak dira eta giroa ona izaten da.



**Ines Fernandez**

San Juaneko bederatziurrenara joan izan naiz, orain urteetan sartuta nagoenez ez naiz joaten, baina hala ere, San Juan egunean mezatarra joaten naiz Santa Barbarara.




**Primitiva Rodriguez**

Bai horixe. Santa Isabeleko bederatziurrena egiten dut. Hala ere azken urteotan Antiora bederatziurrenako azken hiru egunetan bakarrik joaten naiz, gainontzeko egunetan parrokian entzuten dut meza. Astuna egiten zait egunero Antiguara joatea.



**Jone Alvarez**

Ez naiz inoiz bederatziurreneta joan, baina San Juan eta Santa Isabel egunak urtero urtero ospatzen ditut, oso giro ona izaten da eta ondo pasatzen dut bi erromerietan.



**Joxe Lizarralde**

Oraingo honetan Joxe Lizarralderen nondik-norakoak ezagutzeko parada izan dugu.

Gaur egun, Agerre baserriko zumarragar gazte hau lorazaintza munduan dabil eta benetan esparru honetan gustura ari dela aitortu digu.

Joxe, lan desberdinetan aritu ondoren, soldaduzkatik bueltatzean baso birpopulatu gisa ihardun zuen eta honek landareak ezagutzeko bidea ireki zion.

Zenbait ikastaro burutu ostean eta bere kabuz ikasitakoari esker, lorazain bezala hasi zen lanean. Nork ez du Joxe ikusi noizbait gure herriko lorategiak zaintzen?

Nahiz eta bere garaian ikasle amorratua ez izan, irakasle gisa ez da makala eta hiru hilabetez bere ardurapean eduki du gazte talde bat, talde hau ikastaroaren amaieran Urretxuko udalarentzat lanean hasi delarik.

Joxe, oporretan ere landareetatik gertu egotea gustukoa duenez, orain gutxi Holandara eginiko bidai batean hangoen eta hemengoen arteko desberdintasunak ikusten saiatu da. Gure aurrean oso aurreratuak daudela onartzen du eta hemen gauza txukunak egin arren, mantenimenduaren jarraikortasuna bertan behera geratzen dela dio.

Azaldu digunez, arazo latzena jendeak landareekiko agertzen duen errespetu faltan datza. Halere, landareetatik aparte, Joxek baditu beste hainbat afizio ere, hala nola, mendian ibiltzea, baserria, kirola, eta nola ez, lagunekin euskal giro jatorrean juerga on bat egitea inoiz ez dago gaizki!

**KORTABERRIA**

**TABERNA**

Pintxoak, Bokatak, Afariak

Kalebarren 26an gaude

ZUMARRAGA

Tfnoa: 72 04 67



*Lanbira*

- estetika

- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA

**BIONA**

**ARozTEGIA**

Altzariak neurritan

© eta Faxa: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU



# SOFBOLEko Espainiako txapelketa Zumarragan egingo da

**Hilabete barru junior mailako Estatuko taldeak Argixaon aurrez aurre**

Urola K.E.ko beisbol sailak, Estatuko junior mailako txapelketa antolatuko du datorren hilean. Txapelketa Santa Isabel jaietako egitarauaren barnean egongo da eta bertan, Estatuko talderik onenak ikusteko aukera izango dugu. Bestek beste, Zaragoza, Bartzelona, Iruñea, Burlata eta Donostiako punta puntako taldeak lehiatuko dira elkarren aurka.

Iaz, Bartzelonan egin zen txapelketa eta aurren, txapelketa antolatze hutsagatik 250.000 pezeta ordaindu beharko du Zumarragako taldeak.

## Urola k.E.ko Beisbol taldea

Taldeak 1991 urtean eman zituen bere lehen urratsak eta orduan gazte ugarik azaldu zuen bertan jokatzeko gogoia.

Bi herriotan kirol hau oso ezaguna ez den arren, neska talde batek eta mutil talde batek osatzen dute Urola K.E.ko beisbol saila.

Neskak, Gipuzkoako ligan eta Euskadiko Lehen mailan aritzen dira. Beisbolearen jokatu ordez, sofbolearen dihardute. Sofbola emakumeei egokitutako beisbola da eta beisbolarekin konparatuz pilotaren tamainan eta jaurtitzeko moduan ezberdintzen da.



Herritarrekin batera Lazkaoko bi neska dabilta taldean eta aipatzekoa da gainera, hiru jokalarik Euskadiko Selekzioan jokatzeko ibiliak direla.

Mutilak Euskadi mailako kadete ligan aritzen dira.

Bi taldeek Argixaon edo anexoan jokatzeko dute eta kirol honenganako ardura

uriaz kezkatutik agertzen dira batik batik futbolaren nagusitasunaren aurrean. Beisbola praktikatzeko behar den materiala garestia da, horregatik Urretxu eta Zumarragako udalen laguntzak eta HD tabernaren babesa jasotzen dute.

Partidoak 7 sarreretara jokatzeko dira eta 9 jokalarik hartzen dute parte. Ez da praktikatzeko kirol gogorra, astean 4 orduz entrenatzen dute guztira. Entrennenduetan btez ere teknika lantzen dute.

Taldeak jokalariek behar dituzten interesatuta egonez gero, Urola Kirol Elkarteak Jai Alai kalean duen egoitzara jo daiteke informazio bila.

**✓ Urola Kirol Elkarteko sofbol taldeko hiru jokalarik Euskadiko selekzioan jokatzeko dute**

**ELIZ - KALE**

**L AUTOESKOLA**

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

**PLAZAOLA ITURGINTZA**

JACINTO PLAZAOLA ALKORTA

Bidezar, 5  
20700 ZUMARRAGA © 72 13 70

**ALGAR**

*Estetika zentroa*

*Depilazioa, masaiak, azal garbiketa*

Ipeñarrieta 1-1.ezk.  
URRETXU © 72 02 46



*Zubi pare parean dagoen  
zuhaitzari egindako abestia:*

**Zubi hontako arbola da  
bedeinkatua, bidegorrizaleek guztiz  
maitatua (bis).**

**Eman ta zaindu ezazu zubitxo  
berria, adoratzen zaitugu arbola  
zintzua (bis).**

**Gora gure zuhaitzak eta  
Bidegorriak GORA!**

# Agenda

## DANTZA IKASTAROA.

**IRRINTZI** dantza taldeak Larrain dantza ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 24an hasi eta Zumarragako festak arte, ostiralero iluntzeko 7:45tan izango da ikastaroa ikastolan. Ezinbestekoa uda partean Euskal Herrian festarik festa ibili nahi baduzu, Lizarra, Iruña, Gasteiz, Zumarraga...

## OMENALDIA.

Ekainaren 2an, Musika tailerrak, Ramon Esnaola omenduko du. Eguerdiko ordubatean kontzertua eskainiko du loparragirre plazan. **GOIARGI** abesbatza eta **LURRA** dantza taldeek ere, parte hartuko dute omenaldian.

## KONTZERTUA.

**Ekainak 1ean**, Goiargi Txiki abesbatzaren kontzertua izango da Pagoeta Antzokian arratsaldeko 7etan.

## MAIRI.

**Ekainaren 5ean** Yolanda Cerverok, hitzaldia emango du Kultur Etxean, arratsaldeko 3:30etan Mairi emakume elkarteak antolatuta. Gaia: Emakumea gaur egungo gizartean

## ERAKUSKETA.

**Ekainaren 7tik 16ra** bitartean, Jose Luis Agirrerere pintorearen margo erakusketa izango da ikusgai kultur Etxeko erakusgelan.

## ERAKUSKETA.

**Ekainaren 10etik 14ra** Gainzuri ikastetxeko ikasleek egindako eskulanean erakusketa izango da ikusgai Aldaketa erakusgelan.

## ERAKUSKETA.

**Ekainaren 14tik 23ra** bitartean, Pruden Moraza pintorearen pintura erakusketa Itarte Etxean.

## ERAKUSKETA.

**Ekainaren 17tik 23ra** bitartean, Sasieta Mankomunitatearen erakusketa Aldaketa erakusgelan.

Herri Aldizkaria  
**Otamotz**

**Etxean dohain jaso nahi baduzu  
Iragarkiren bat egin nahi baduzu**

**Deitu 72 57 75 telefono zenbakira**

## LEHIAKETAK.

*100 razones para aprender euskara eta ...eta erabiltzeko beste hamaika arrazoi* lehiaketak antolatutuzte, Bisasti AEK euskaltegiak, Udal euskaltegiak eta *Zintzo-Mintzo* euskaltzaleen elkarteak. Oinarriak eta informazioa, aipatutako taldeen egoitze-tan eta Kultur Etxean

**LEHIAKETA.** Urretxu - Zumarragako eskolarteko IX. bertso-paper lehiaketa-ko sari banaketa egingo da Pagoeta Antzokian.

**KALEBARRENGO JAIK.** Ekainren 13, 14 15 eta 16an Kalebrrengo jaiak ospatuko dira.

**DANTZARI TXIKI EGUNA.** Ekainak 23an, LURRA Dantza taldeak antolatutako Dantzari Txiki Eguna ospatuko da. Goizeko 12etatik aurrera, ibilaldia egingo dute dantzari guztiek Urretxuko kaleetan zehar, arratsaldeko 5.30etan berriz, dantzak izango dira ikusgai Lizeoko plazan. Legazpi, Orereta, Zaldibi, Ordizia, Bergara, Beasain, Lezo eta Irrintzi eta Lurra dantza taldeetako dantzariak hartuko dute parte ekitaldian.

**EUSKAL HERRIKO UNBERTSITATEA.** Urretxuko udalak dirulaguntzak eskainiko die UEUn matrikulatu nahi duten herritarrei. Epea, ekainaren 21erarte.

## LORE LEHIAKETA.

Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako lore lehiaketa. Deialdia ekainean egingo da eta uztailaren lehen hamabostaldian epaimahaiko kideek bi herritako baserri eta balkoietako loreak ikusten arituko dira.

**KONTZERTUA.** Secundino Esnaola musika ikastetxeak kurso amaierako kontzertua eskainiko du ekainaren 20an, Pagoeta antzokian arratsaldeko 7:30etan

**IRRATIZALEAK.** Ekainaren 22an eguerdiko 12tan hasi eta ekainaren 23ko eguerdiko 12ak bitartean, irratiko 24 ordu kulturalen VII. jardunaldia antolatu dute bi herrietako irratizaleek.

**SAN JUANAK.** Ekainaren 23an, urtero bezelaxe San Juan sua piztuko da Urretxun eta Zumarragan. Zumarragan txistulariek eta musika bandak girotuko dute ekitaldia eta Urretxun, txistulariek, txalapartariak, trikitilariak, dultzainajoleak eta dantzariak girotuko dute gaua. San Juan egunean, erromeria ospatuko da Santa Barbaran.

**SANTA ISABELAK.** Ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitartean ospatuko dira aurtengo Santa Isabelak.

# Zorionak!!!



Enara, Xabat, Bittor, Manex eta Mikel lehengusuek zure bigarren urtebetzean ozenki hauxe esaten dizugu: **Miren, ZORIONAK!!!!!!!**



Urte bat, bi, hiru, lau joanez, horra hor bosgarrena **JOANES. Aupa Pototo!!!. ZORIONAK** Inigo, Xabier eta gurasoen partetik.



**ZORIONAK** ala Happy birthday esan behar ote? Urretxuko txoko txiki honetatik Ingalaterran dagoen **Idoia**txori **LURRA**ko bere adiskideek



**ZORIONAK** Ana eta Jose Luis. Zer, nahiko aguantatuta, e? Baina zilarrezko ezteitako bazkariagatik merezi duela uste dugu. Segi horrela!!!!



Zuri ihes egindako txoriak esan dit zure urtebetetzea dela, **ZORIONAK** Ariadna eta **HURRENGO** batean hobeto **ZAINDUU!** **PIO! PIO! PIO!**



A ze sorpresa eh? festrik festa zerekin ibiltzen den begirale ezkutua naiz. Atera ezazu baxoerdia eta esango dizut nor naizen. Bitartean... **ZORIONAK** Joseba!!!

# Lagun Aro Aseguruak, zure konfidantzazko konpainia Zumarragan



**Auto** aseguruak  
**Etxebizitza** aseguruak  
**Bizitza** aseguruak  
**Denda** aseguruak  
**Istripu** aseguruak  
**Jubilazio** aseguruak



**SEGUROS LAGUN ARO**  
**ASEGURUAK**

Kalebarren, 1 behea Tfnoa: 72 50 22



**Ekar ezazu kupoi hau Zumarragako Lagun Aroren bulegora.  
Opari bat jasoko duzu informatzera etortzeagatik.**

# Euskaltzaleen egunean etorkizun handiko kantariak karaokean



15. zenbakia



11. zenbakia



12. zenbakia



21. zenbakia



17. zenbakia



9. zenbakia



16. zenbakia



19. zenbakia



22. zenbakia



10. zenbakia



18. zenbakia



13. zenbakia



6. zenbakia



20. zenbakia

## Abeslariak adi!!!!

Zuen lehenengo kontzertuaren argazkirik nahi baduzue, etor zaitezte, ZINTZO-MINTZOra, Labeaga kalea 12ra (lehenengo ATERPERa), eta 75 pezetaren truke, zuen jarraitzale eta lagunuen artean banatzeko oroigarria eskuratu ahal izango duzue.